

# IZARDIZKO ETA AMORRUZKO TANTAK

*Jose Manuel Unanue*

## MANIKI

Plastikozko mutil lerdanak  
kiskurak ile horiak  
zorion erreza aurpegian  
ondo amaitutako gorputzak.

Euli neskaz inguratuta  
esku finak, kaskarinak  
oparitutako motorrean  
gaueko azken zaldunak.

## DROGA ONURAGARRIEN HIZTEGI EPISTEMOLOGIKO LABURRA

TABAKOA: BAKETSUA, ERRAUXKA  
ARDOA: PIZKORRA, ODOLTSUA  
JATXISA: BARNERAKORRA, MARROIXKA  
KOKAINA: ELURTSUA, NEKAEZINA  
ANFETAK: ÑABARRAK, URDURIKORRAK  
MARIA: BERDEA, ALAITSUA  
HEROINA: ILUNA, ERANSKORRA  
POPPER: GARDENA, SUBITOKOA  
PEYOTE: AUSKALO, ATZERAKORRA  
MUSKARIA: ARRISKUTSUA, GORRINGOA

## GAU GORRIA

Atzerritik etorri ziren  
infernuko gorriko hegalariai

Oskorri okerra zabalduz  
zuhaitzen belztasun gainetik.

(Ez beldurtu, Josetxo)

Belardi gainean antxintxiketan  
burdinezko arantzen aurrean.

(Eta zenbat geratu, Josetxo)

Lurrak ikara oinetan  
aienak lau haizetan.

(Entzun, ez ikaratu Josetxo)

Zelaia mitxoletaz ereina  
gorputzez agudo betea.

(Ez zenuen ikusi, maitia)

Tripak beteta balute lez  
supositorio higuigarri jaurtikiz.

(Trumoiak beldurtzen bazaitu nola ez eztrandak)

Hitz sakratua Espainetan zaramatenek  
bidali zizkiguten zakur hertzainak.

Ardi gorri, zuri, beltz, denak  
hesian sartzeko asmoz.

(Gorriak, gorriak izan dira!

Pentsa erasi zizuten, Josetxo)

Baina gezurra koadro batean  
margotuta geratu zen.

Arbola ere hantxe  
geldi geratu zen  
ekaitza baretu arte  
baitarako zioen:

Makina haize beltz  
jasan dut oraindino  
sustarrak sakonak ditut  
ez naute botako.

Eraman deixala hostoak  
udaberri erdian  
ni berriz loratuko naiz  
hurrengo urtean.

## IGARKIZUNA

Atso zahar bat zen  
oilo beltz bat zen.

Ez zuen gandorrik  
ez eta lumarik.

Erruten ez zuen  
berba egiten ere ez.

Esan nion purra-purra  
ia koskatu zidan sudurra.

Zer ote zen?

## DOLUZKO GUARDASOLA EZ ERAMATEARREN

Eguraldi zikinpean  
bazterrak txupatzen  
ormari natxekio.

Bisuts higuigarria  
txintxinak kokoraino  
zipristin ugari.

Aurpegi berdinak  
antzarik gabe  
ohizko espaloitik.

Jende hauek  
bizitzaren beste alboa  
ez dezagute.

## ILUNTZEAN

Hilgora gazta bigun atzetik  
jada agertu da Artizarra.

Hauekin bat batera  
hegaz dabil saguzaharra.

Oskorria, laranja itzala  
mugatzen mendien marra.

Altzoan baserriko argia  
damaio lur izarra.